



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko maiatzaren 26a

70. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea. Aurkeztutako zuzenketak (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 20an egindako Osoko Bilkuran, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, 2021erako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzen duena**

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuak, 2021-2026 aldian, Suspertzerako Europako Bitartekoaren (Next Generation EB) funtsak kudeatuko ditu, honako hauetarako:

- a) Bitartekoak erabiltzea ekonomia suspertzeko, kalteak konpontzeko eta krisitik indartuta ateratzeko.
- b) Neurriak hartzea inbertsio pribatua bultzatzeko eta zailtasunak dituzten enpresei laguntzeko.
- c) Europar Batasuneko funtsezko programak indartzea, krisitik zer ikasia ateratzeko, merkatu bakarra indartsuagoa eta erresilienteagoa izateko, eta trantsizio ekologiko eta digitala bizkortzeko.

Funts horiek ahalik eta hobekien kudeatzeko, ezarritako helburuak lortzeko behar diren mekanismoak antolatu nahi dira. Horretarako, beharrezkoa da aurrekontu-araudia aldatzea aurrekontuko partiden arteko funts-mugimenduak mugatzeari dagokionez.

Kontuan hartu behar da funts horien zati bat, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik datozenak, Estatuko Aurrekontu Orokorretan zuzkitutako kredituak direla, aurrekontu-atal bakoitzeko «Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoa» izeneko 50. zerbitzuan. Funts horiek beren arau-esparruaren arabera hautagarriak diren jarduerak finantzatzeko baino ezin izanen dira gauzatu.

Estatuko Administrazioetik jasotako transferentzien diru-sarrerak, Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismitik datozenak, Berreskuratze, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planeko proiektu edo ekintza-lerroak estaltzera bideratutako aurrekontu-kredituak finantzatzera lotuta daude legez. Gasturik egiten ez bada, Nafarroako Gobernuak Altxorrari itzuli beharko dizkio esleitutako helbururako erabiliko ez diren funtsak. Ondorio horietarako, itzulketa-prozedura Ogasuneko ministroaren agindu bidez arautuko da.

Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoan onartutako proiektu bakoitzaren aurrekontuko gastu-partidak helburu horretarako eta antzeko beste batzuetarako sortutako atributuen modulua- ren bidez identifikatuko dira. Horren jarraipena egin ahal izateko, urteko kontuen formulazioan, diruzaintza-geldikin lotuan, jarduketa horiek estaltzera bideratutako zati lotua bereiziko da.

Horretarako, 62. artikulua gehitzen zaio 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legeari. Bestalde, antzemandako akatsak zuzentzeko, 2021erako gastu-aurrekontuko sei partidaren izena aldatzen da.

Hala, lehenik eta behin, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari dagokion partiden araberrako gastu-aurrekontuan, "080002 08100 4819 232208 (E) Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera" aurrekontuko par-

tida hemendik aurrera “080002 08100 4819 232208 (E) Giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena. Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera” izanen da.

Bigarrenik, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. Aita Lasa fundazioarekiko hitzarmena” aurrekontuko partida aurrerantzean “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilarekiko hitzarmena” izanen da. Aldatzen da izena zuzena ez delako; izan ere, dirulaguntza San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilari eman behar zaio, juridikoki haren mende baitago Aita Lasa zentroa, diruz lagundutako jarduera egingo duena.

Hirugarrenik, Kultura eta Kirol Departamentuak bi aldaketa proposatzen ditu bere gastu-aurrekontuan: “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin Lekarozko Campuserako kirol-plan gidari bat idazteko” aurrekontuko partida hemendik aurrera “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin, Baztango kirol-instalazioen plan bat idazteko” izanen da; eta “A50001 A5410 7609 336117 Garesko frontoia eraberritzea” aurrekontuko partida, aldiz, A50001 A5410 7609 336117 “Gareskoa frontoia eraberritzea 2019an eta 2020an” izanen da.

Laugarrenik, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “B50002 B5100 2276 Nafarroako mugaldeen merkataritza antolatzea” aurrekontuko partida aurrerantzean “B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaz gaidiko merkataritza buruzko azterlana” izanen da.

Azkenik, Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “210001 21300 7609 45B121. (E) Alesbesko Rodríguez de la Fuente parkea egokitzea” aurrekontu partida aurrerantzean “210001 21300 7609 45B121. (E) Alesbesko 4. poligonoko 1692. lurzati dagoen haur parkea estaltzea” izanen da.

**Artikulu bakarra.** 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legea aldatzea.

**Bat apartatua.** 2021erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 20/2020 Foru Legeari 62. artikulua gehitzen zaio. Hona hemen haren testua:

“62. artikulua. Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kredituak kudeatzea.

Funtsen mugimenduak egin ahal izanen dira Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoan Estatuko Administrazioako organo eskudunak onartutako proiektu bakoitzari dagozkion partiden artean, eta, nolahi ere, kudeaketa agintaritzak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege-dekretuaren 46. artikuluan aipatzen den identifikazio-kodea esleitzen dionean.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funtsen mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren. Funtsen mugimendu horiek Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Next Generation Bulegoko titularraren adostasuna izan beharok dute”.

**Bi apartatua.** Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “080002 08100 4819 232208 (E) Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera” aurrekontuko partida hemendik aurrera “080002 08100 4819 232208 (E) giza salerosketaren aurkako ekintzarekiko hitzarmena. Bizirik atera diren emakumeak: prozesu pertsonaletik eraldaketa sozialera” izanen da.

**Hiru apartatua.** Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. Aita Lasa fundazioarekiko hitzarmena”, aurrerantzean “F10001 F1100 4819 231904 Asilo eta Babes Programa Berraktibatzeke Plana. San Frantzisko Xabierkoa fundazio zibilarekiko hitzarmena” izanen da.

**Lau apartatua.** Kultura eta Kirol Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin Lekarozko Campuserako kirol-plan gidari bat idazteko” aurrekontuko partida hemendik aurrera “A50001 A5410 7609 336128 (E) Hitzarmena Baztango Udalarekin, Baztango kirol-instalazioen plan bat idazteko” izanen da.

**Bost apartatua.** Kultura eta Kirol Departamentuari dagokion partiden arabera gastu-aurrekontuan, “A50001 A5410 7609 336117 Garesko frontoia eraberritzea” aurrekontuko partida aurrerantzean A50001 A5410 7609 336117

“Gareskoa frontoia eraberritzea 2019an eta 2020an” izanen da.

Sei apartatua. Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuari dagokion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaldeen merkataritza antolatzeko plana” aurrekontuko partida aurrerantzean “B50002 B5100 2276 144100 (E) Nafarroako mugaz gaindiko merkataritzari buruzko azterlana” izanen da.

Zazpi apartatua. Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagokion partiden araberako gastu-aurrekontuan, “210001 21300 7609 45B121. (E) Alesbesko Rodríguez de la Fuente parkea egokitzea” aurrekontu partida aurrerantzean “210001 21300 7609 45B121. (E) Alesbesko 4. poligonoko 1692. lurzatian dagoen haur parkea estaltzea” izanen da.

**Azken xedapenen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez Nafarroarako arautzen baita jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroarako jaioberrien baheketa areagoturako eskubidea arautzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak. Proposamen hori 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**1. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA EUSKAL HERRIA BILDU  
NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

2.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«2. Foru lege honetan xedatuaren ondorioetarako, ulertuko da ondoko patologietan ebidentzia zientifikoa eta nazioko eta nazioarteko adituen batzorde zientifikoek argitaratutako patologiak jasotzeko gomendioen ebidentzia daudela eta, horrenbestez, jaioberrien bahetze areagoturako populazio-programaren parte izanen direla:

a) Lege hau aldarrikatzeko egunean jasota dauden patologiak.

b) Honako patologia hauek:

Hiperfenilalaninemiak

I, II eta III motetako tirosinemiak

I eta II motetako zitruulinemiak

Azidemia propionikoa

Azidemia metilmalonikoa

Zetotiolasaren defizita

Mitokondrietako proteina hirufuntziodunaren defizita

Aziduria 3-hidroxi-3-metilglutarikoa

3 metilkrotonil-CoA carboxilasaren eskasia

Aziduria 3-hidroxi-3-metilglutarikoa

Isobutiril glizininuria

Karnitina palmitoil transfenasa len eskasia

Kate oso luzeko Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia

Kate laburreko Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia

Azil-CoA deshidrogenasaren eskasia anizkoitza

GALT Galaktosemia

GALK Galaktosemia

II. motako azidemia glutarikoa

Immunoeskasia konbinatuak

X kromosomari loturiko adrenoleukodistrofia

Pompe-ren sindromea

1. motako mukopolisakaridosisa

c) Une bakoitzean erantsi ahal direnak, Osasuneko kontseilariaren foru agindu bitartez, foru lege honen 5. artikuluan arauturiko Adituen Batzorde Diziplinanzitunak ezarritako gomendioei jarraikiz.

**2. ZUZENKETA**

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,  
GEROA BAI ETA EUSKAL HERRIA BILDU  
NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK,  
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
ETA IZQUIERDA-EZKERRA  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA**

4 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«4. artikulua. Jaioberrien baheketa areagotura-ko populazio-programaren edukia.

2. artikuluan araututako jaioberrien baheketa areagotuko probak pazienteei egin ondoren emaitza positiboa ateratzen bada, sekuentziazio genetikokoaren eta/edo genomikoaren azterketa eginen da, oinarrizko patologiaren mutazio genetikoa detektatu ahal izateko».

### 3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

5.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hauxe da testu berria:

«5. artikulua. Jaioberrien Baheketa Areagotuaren Adituen Batzorde Diziplinaniztuna.

1. Foru dekretu bidez sortuko da Jaioberrien Baheketa Areagotuaren Adituen Batzorde Diziplinaniztuna, eta haren osaera zehaztuko da. Guixienez sei kidek eta gehienez bederatzik osatuko dute batzorde hori.

Adituen Batzorde Diziplinaniztuneko kide izateko proposatzen diren adituek parte hartu beharko dute Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan

Osasunaren Institutuan, Nafarroako Ospitaleguneko Pediatria, Genetika, Barne Medikuntza, Endokrino-Nutrizio eta Immunologia zerbitzuetan eta, gehienez ere, patologia horiekin zerikusia duten pazienteen elkarteetako bi ordezkari, betiere batzorde horretako kideek hala onartzen badute».

### 4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EUSKAL HERRIA BILDU NAFARROA**  
TALDE PARLAMENTARIOEK,  
**PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
**ETA IZQUIERDA-EZKERRA**  
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK  
AURKEZTUA

Artikulu berri bat gehitzeko zuzenketa:

«6. artikulua. Eritasun Arraroen-Metabolopatiaren Unitatea

Foru dekretu bidez, Nafarroako Ospitaleguneko Eritasun Arraroen Unitatea sortuko da. Honako zerbitzu hauek osatuko dute: Genetika, Pediatria eta Barne Medikuntza, Endokrino-Nutrizioa eta Immunologia.

Eritasun Arraroen Unibatearen eginkizun nagusia izanen da adin pediatrikoko gaixoak artatzea. Nolanahi ere, zerbitzu horietan tratatutako pazienteak helduaroan baloratu beharko dira, Nafarroako Ospitaleguneko Barne Medikuntzako Zerbitzuak trantsizio-konsulta minoritario bat eginez».

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari eta horien edukiari buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 15eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatzizko galdera egin du (PES-00146); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

*Nafarroako Gobernuak Next Generation funtsetarako irisgarritasunaren arloko proiektuak aurkezteko aurreikuspenari buruzkoa?*

*Zein da proiektu horien edukia?*

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legeak, Nafarroako Parlamentuan aho batez onetsiak, xede du irisgarritasun unibertsaleko baldintzak ezartzea, honakoak bermatzeko beharrezkoak direnak: pertsona guztien eta, bereziki, desgaitasunen bat duten pertsonen aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, komunitate-inklusioa eta bizimodu beregaina.

Esan beharra dago Irisgarritasunari buruzko Foru Legearen helburuak agintzen duela Nafarroako Gobernuak garaturiko eta bultzaturiko ekintza guztietan eta, beraz, irisgarritasun unibertsalaren eta aukera-berdintasunaren kontzeptua une oro egon dela presente, Europako Next Generation EU berreraikuntza-funtsen bitartezko finantzaketa lortzearen Nafarroa lantzen ari den asko-askotariko arloetako proiektuen diseinatze eta prestaketan.

Dena den, eta berriro azpimarratuz ezen helburu horien ildotik doala Nafarroako Gobernuak Next Generation EUko deialdi desberdinetara aurkeztu dituen edo aurkeztekoak litzuzkeen proiektu

tuen multzoa, zehazki alor honekin zerikusia duten proiektu batzuk nabarmendu daitezke:

### **Irisgarritasun unibertsalaren alorreko erreferentzia-zentroa, Eskubide Sozialetako Departamentuaren gidaritzapekoa.**

Proiektuan aurreikusten da irisgarritasun-alorreko erreferentzia-zentro bat sortzea, Nafarroako Gobernuaren departamentuekin lotura izanen duena eta ondasun eta zerbitzuak irisgarritasun unibertsalerantz eraldatzea bultzatuko duena. Horren xedeak: - Irisgarritasun-alorreko dibulgazioa (Nafarroako egoeraren analisia, irisgarritasun unibertsala kudeatzeko sistemei loturiko metodologia, ekipamendu-produktuak) - Zerbitzu-ematea (hasi entitate publikoentzako eta pribatuentzako aholkularitza eta herritarren arretaraino) - Irisgarritasunaren alorreko hausnarketa-gune bat eratzea, elkartegintzaren parte-hartzearekin. - Irisgarritasunaren alorreko ikerketa sustatzea

Nahia da irisgarritasun-alorrean dagoen jakintza zabaltzea eta jendearenganatztea, eguneroko zereginetan barneratu dadin eta aplikazio-esparru ezberdinetan neurriak hartzeko modua eman dezan: gune publiko urbanizatuak, azpiegiturak eta eraikuntza, garraioak, komunikazioak, jendearentzako produktu eta zerbitzuak, administrazio publikoekiko harremanak, justizia-administrazioa, kultur ondarea, kultur, kirol eta aisialdi jardunak, enplegua eta hezkuntza-sistema.

Inbertsioaren gauzatzea: Irisgarritasunaren alorreko erreferentzia-zentroak eskainiko litzuzkeen prestazioak taxutzea, irisgarritasun unibertsalaren alorreko kudeaketa-sistemen zuzkidura, zerbitzuen eraldaketan eragile nagusi direnei prestakuntza emateko prozesuak. Taxuketa eta funtzionamendu-modua zehaztu ondoren, kudeaketaz Nafarroako Gobernu arduratuko litzateke.

Gainera, Hezkuntza Departamentuak proiektua React EB Funtsetara aurkeztu du.

### **Irakaskuntza-erakin publikoak Irisgarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legeari egokitzea, inklusibotasunez. Hezkuntza Departamentuak React EB Funtsetara aurkeztua**

Asmoa da ikastetxe publikoak kokaturik dauden higiezinaren irisgarritasuna hobetu eta/edo ahalbidetzeko neurriak bultzatzea.

Une honetan, egoera honekin topatzen gara: ikastetxeak kokaturik dauden eraikin batzuen errealtate fisikoak oztopatu egiten dituela hezkuntza-atorreko irisgarritasun-helburuak eta ikasgeletako hezkuntza inklusiboa.

Ikastetxe-eraikinik gehien-gehienak egin ziren ez zegoenean oraindik ere haien irisgarritasunari buruzko araudirik. Araudi horrek bilakaera bat izan du, gehienbat azken urteotan; horrenbestez, nahiz eta zenbait urrats egin diren oztopoak kentzeko, ikasleen eskolatzeko-premien edo irisgarritasun-premiak dituzten irakasleen erabileraren arabera, ezinbesteko gertatzen da eraikinak pixkanaka irisgarritasun-araudiari egokitzen joateko jarduerak programatzea.

Jarduketa horien helburua da eraikinen irisgarritasuna hobetzea, ikastetxeak hezkuntza inklusibora egokitzeko.

Zilegi izanen da jarduketak eraikin osorakoak izatea, halatan araudi indardunari zeharo egokitzea lorturik, edo partzialak izatea, halako moldez non lortuko baitira desgaitasunak dituzten pertsonak erabili ahal izateko moduko espazioak (komun irisgarriak...), edo eraikineko gune edo solairu ezberdinetarako irisgarritasuna (igogailua jartzea, arrapalak...).

**Nafarroako Jauregi Efiziente eta Jasangarriaren Proiektua. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak React EB Funtsetara aurkeztua**

Nahiz eta urteak pasa ahala eraberritzeak eta mantentze-jarduketak egin diren, eraikinak gabezia handiak dauzka energia-efizientziaren eta irisgarritasunaren aldetik. Energia-efizientziarako beharrezkoak diren inbertsioei dagokienez, zenbait jarduketa planteatzen dira: sabaietan isolagailu termikoak paratzea, argizatze-sistemak aldatzea, leihoak aldatzea, aire girotuko sistema zentralizatua...

Irisgarritasunaren ikuspegitik, proiektuak asmatan dauka, halaber, nafar herritarrei zuzenean eskaintzen zaizkien zerbitzuak irisgarriak izan daitezen pertsona guztientzat, zein ere den haietako bakoitzaren egoera pertsonala, herritarrek modua izan dezaten, duten egoera dutela, zerbitzu publikoak ekitate-baldintzetan eskuratzeko.

**Kultur ondareko ondasunak irisgarriak izateko Errealitate Birtualeko Proiektua. Kultura eta Kirol Departamentua.**

Kulturaren irisgarritasun unibertsala ziurtatzeko neurriak hartzea sustatzen da; horien artean, nabarmentzekoa da errealitate birtualaren erabilera. Ekintza horrek lagunduko du lortzen pertsona

orok eskubidea izatea Nafarroako Museoen eta Bilduma Museografiko Iraunkorren Erregistroan inskribatutako museoetarako eta bilduma museo-grafiko iraunkorretarako irispidea izateko, ezarritako baldintzetan.

Gainera, **Zaintza-lanen ekonomiarako eta berdintasun- eta gizarteratze-politikak indartzeko Talka Planak, zeina Eskubide Sozialetako Departamentuarena baita**, 11 proiektu handi aurkeztu dizkio Eskubide Sozialetako Ministerioari, datozen hiru urteotan Irisgarritasunari buruzko Foru Legeko helburu ugari lortzeko neurri batzuk abiarazteko Europako funtsen esparruan. Proiektu horien artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

#### **Egoitza soziosanitarioen eraberritzeak.**

Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren zentro publikoak egokitzea; zaharrentzakoak, desgaituentzakoak eta etxegabeentzakoak. Nafarroako Foru Komunitateko zentro soziosanitarioetako azpiegiturak eraberritzea, haiek egokitzearren pertsonarengan ardazturiko arreta-eredura, bai eta haien instalazioen energia-efizientzia hobetzeko ere, zaintza-lanak digitalizatzeko eta irisgarritasun-atorreko balizko mugapenak gainditzeko.

Asmoa da haien eraldaketa teknologikoa jomugan hartzea. Zentro konektatuak, teknologia berriak erabiltzeko modua ematen dutenak, bertako egoiliarren eta haien zaintzaren mesedetan, harremanak erraztuz eta norbanakoaren nahiz taldearen ongizatera bideraturiko esku-hartzeen lagungarri gisa.

Zentroak trantsizio digitalaren ildotik bideratzeko erraztasunak jarriko dira, haiei konektibitatea bermatzeko behar diren tresnez hornituz (horrenbestez, orobat bermaturik zerbitzu sozialen digitalizaziorako proiektu komunetan parte hartzea).

#### **Telelaguntza. Ingurunearen kontrolerako sistema digitalak.**

Soluzio domotikoak eta telelaguntza aurreratua erabiltzea aurrerapen handia da.

Teknologia berriek modua ematen dute pertsonak beren ingurunean egoteko, bai eta bakarrik bizi diren pertsona edadetuei laguntzeko ere, segurtasuna emanik eta bakartasuna samurtuz.

Uneotan, Nafarroako Foru Komunitateak oinarritzko telelaguntza-sistema bakar bat dauka. Beharrezko gertatzen da eredu aurreratu baterantzko urratsak egitea eta zerbitzu hori erkidegoko leku guztietara estaldura egokiz iristeko moduko softwarean inbertitzea, eta, halaber, sostengu



teknologikoko produktuei eta ingurunea kontrolatzeko sistema domotikoei bultzada ematea.

Proiektu horren exekuzioarekin honako hauek lortu nahi dira, besteak beste: – Mendekoak, zaharrak edo desgaituak diren pertsonentzako zerbitzu soziosanitarioaren maila egoki bat bermatzea, horren beharrean daudenean - Landa ingurune eta lurralde despopulatueta pertsona zaharrei laguntzea - Pertsona edadetuak modua izan dezaten beren etxean bizitzen luzaroago gera daitezten.

**Laguntza-baliabideak eta eguneko egonaldiko baliabideak egokitzea babes-sistemako adingabeentzat eta bitarteko teknologikoz hornitzea, egoitza-harrerako zerbitzuetarako**

Egoitza-gunea egokituko da. Horretarako, komunak egokituko dira, oztopo arkitektonikoak kenduko, egungo eredu araberakoagoak diren areto berriak eginen (bisita-gela, ikasgela/tailerra, kanpoaldea egokitzea eta abar), bertan bizi diren haur eta nerabeen intimitatea, segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko.

**Nafarroako historia sozial elektronikoko bateratua**

Informazio-sistema bat garatzea, halakoa non pertsonaren arreta integratua, elkarreragingarria eta koordinatua ahalbidetuko baitu, helburua izanik zerbitzu sozial irigarriak, azkarrak eta malguak sustatzea.

Zerbitzu sozialen eta horiei loturiko prestazioen prozesuak kudeatzeko sistema tradizionalak oso zurrinak izan dira, eta ez dute modurik eman antolakuntzako aldaketei eta herritarren beharrezko den azkartasun eta malgutasunez erantzutea, non eta prozesuetako efizientziak egoera zaugarrian dauden herritarrei zuzenean eragiten dien sektore batean.

Bestalde, nafar herritarrentzako babes sozialeko bitartekoak heltzen dira bai Nafarroako Gobernuak hornituriko baliabideetatik bai udalek horniturikoetatik ere, gizarte zerbitzuetan dituzten eskumenen esparruan. Bi neurrien arteko sinergiak areagotu egiten lirateke eskueran halako tresnak izanez gero non modua emanen bailukete haiek Administrazioaren maila ezberdinetan koordinatzeko, esku-hartze proiekturako helburuak definitzeko eta horien betetzea ebaluatzeko.

Horrela, espedienteak izapidetzeko denborak, herritarrei dokumentazio ugaria eskatu beharra, informazio bat bera sistema ezberdinetan sartu beharrak eragiten dituen efizientziarik ezak eta sistemaren erabiltzaileen nahiz langileen gogobetetze-maila, horiek guztiak ebidentziak

dira, informazio-sistema honetan inbertitzearen garrantzia agerian uzten dutenak.

Aipatu proiektuez gain, nabarmendu beharreako da irisgarritasun-alorreko soluzio asko teknologia berriak garatzearen bidetik doazela, lagungarri zaizkienak pertsonen autonomiari, aukera-berdintasunari eta irisgarritasunari.

Ildo horretan, lantzen ari dira Next Generation EU deritzon estrategia digitalaren ardatzean dauden zenbait proiektu, bideratuta daudenak erabateko konektibitatea bermatzera, beharrezko oinarrietako bat delakoan pertsonen garapenerako aukera-berdintasuna eskaintzeko eta digitalizazio beterako trantsizio-prozesuan aurrerapausoak emateko, non zerbitzuak zeharo digitalizatuta egonen baitira eta giltzarri izanen baitira berdintasuna eta erabateko inklusioa erdiesteko, herritar guztientzako irisgarritasuna eta aukera-berdintasuna sustatuko dituen esparru bat tankeratuz.

Sektore Publikoa Digitalizatzeko Proiektua, Unibertsitate eta Berrikuntzako Departamentuaren gidaritzapekoa.

Asmoa da Nafarroako Administrazio Publikoaren efizientzia operatiboa areagotzea, teknologia digitalak ezarriz, oinarriko azpiegitura eta zerbitzuen bilakaeraren bidez eta gizarteak zerbitzu publikoetarako duen irisgarritasun digitala eta zerbitzu horien erabilera sustatzea. Besteak beste, honelako neurrien aldeko apustua egin nahi da:

– Zerbitzu publikoen irisgarritasuna.

Identitate digital bateratu eta amankomuna garatzea Nafarroako Administrazio publikoarekiko elkarrekintza guztirako (datuaren kalitatea hobetzea).

Irisgarritasun erraz eta segurua edozein elkarrekintzatarako (izapidetzea, kudeatzea, laguntza ematea), oztopo diren faktoreengatik arrakala murriztuz (hala nola kokalekua, hizkuntza...)

Identitate digitala eta datu bateratua: Pertsona fisikoak eta juridikoak identifikatu eta autentifikatzeko sistema bat garatzea, erregistroko datuen, datu biometrikoen eta abarren bidezkoa eta euskarri desberdinak erabiltzen dituen (appak, inprimakiak, irakurgailuak...), eta bateragarria izanen dena beste administrazio publiko batzuen sistemekin (adibidez, CI@ave, FNMT, DNle).

– Leihatila birtuala: Herritarrei modu elektronikoa arreta emateko tresna bat garatzea, honakoetarako modua emanen duena: mahaigaina eta dokumentuak partekatzeko aukera ematen duen

bideokonferentzia, azpтитulu eta txat aukerak, ilara birtualak eratzea, bide presentzialen eta ez-presentzialen kudeaketa bateratua, lengoaia naturala prozesa dezaketen txatbotak, ahalmena dutenak herritarra kasuko arreta-bidera bidaltzeko eta/edo ohiko zalantzei erantzun azkarra emateko. Lanabesa API bidez integratu beharko da webgunerako eta barne kudeaketarako daudenekin. Aukerak emanen ditu autentifikaziorako eta datu pertsonaletara baimen bitartezko sarbidea izateko.

– Arreta eleanitza: Elkarrizketa-txatbotak garatzea (adimen artifizialekoak), erkidegoko hizkuntza eskatuenetan kontsultak artatzeko eta pertsoneri erantzuteko.

Txatbot-plataforma bat garatzea, zerbitzu horiek toki entitateei eskaintzeko modua emanen duena. Aldibereko itzulpendun telefono-arretarako proiektu bat eta txatbot eleanitzak garatzea.

– Irisgarritasuneko web-inguruneak (navarra.es eta lankidetzak-espazioak): Plataforma-atari berri bat garatzea, herritarra xede izanen duena, non webgune modernoek multzo bat egonen baita, informazioa modu proaktibo, azkar eta erantzunkorrean eskainiko duena (gailuanitza).

Hona aldatutako proposamenak adibideak besterik ez dira, erakusten dutenak nola Nafarroako Gobernua bere departamentuen bitartez Next Generation EU funtsetara aurkezteko lantzen ari den proiektu ezberdinek helburutzat duten aurre-rapausoak ematea irisgarritasun unibertsalaren alorrean, halatan bermatze aldera aukera-berdintasuna, autonomia pertsonalaren sustapena, erkidegoko inklusioa eta bizitza beregaina izan ditzaten pertsona guztiek eta, bereziki, ezgaituek.

Dena den, ekimen-zerrenda hori ez da behin betikoa, zeren eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionala betetzeko egin beharreko ekintzak ez baitaude itxita, eta Nafarroako Gobernuak lanean dihardu ministerio ezberdinekin. Horrenbestez, proiektuen zehaztapena ez da amaitu, eta litekeena da ekimen eta jarduketa berriak sortzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 11n

Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía



